



HEZKUNTZA SAILA

Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritza
Etengabeko Ikaskuntzaren eta Irakasleen
Hobekuntzarako Zerbitzua

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Dirección de Aprendizaje e Innovación
Servicio de Aprendizaje Permanente y
Perfeccionamiento del Profesorado

Huts-zuzenketa, honako honena: EBAZPENA, 2025eko azaroaren 21ekoa, Ikaskuntza eta Berrikuntzako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita unibertsitatez kanpoko irakaskuntza (heziketa-zikloak izan ezik) ematen duten Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei egindako deialdia, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuekin lotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2025-2026 ikasturtean.

Ebazpen horren II. eranskinean, onartutako berrikuntza-proiektuak garatzeari eta lantzeari lotutako prestakuntza-jarduerak egiteko esleitutako ikastetxeen eta diru-zuzkiduren zerrenda jasotzen zen. Zerrenda horretan honako hau agertzen zen:

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Esleitutako zenbatekoa (€)	2025 (€)	2026 (€)
GIPUZKOA	12007	CEIP ZUMADI HLHI	2.700,00	1.269,00	1.431,00

Esleipen hori akats aritmetiko baten ondorioz zuzendu behar da, eta dotazio berria izango da:

Territorio	Código	Centro	Esleitutako zenbatekoa (€)	2025 (€)	2026 (€)
GIPUZKOA	12007	CEIP ZUMADI HLHI	1.100,00	517,00	583,00

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, edozein unetan zuzendu behar dira akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. 2025eko azaroaren 21eko Ebazpenaren II. eranskinean atzemandako akats aritmetikoa zuzentzea, eta ZUMADI HLHI ikastetxeari esleitutako zuzkidura ekonomikoa (12007 kodea) ebazpen honen hirugarren apartatuan adierazitakoaren arabera esleitzea.

Bigarrena. Zuzenketa hori jatorrizko ebazpena argitaratu zen bide berean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren egunean.

Aitor Uriondo Usandizaga
Ikaskuntza eta Berrikuntzako zuzendaria